

Gorputzak agertokian

Elkarrizketa honetan Jennifer Lacey (JL) eta Nadia Lauro-k (NL) *SShot*-i buruz hitz egiten dute. *SShot* gay pornografiaren eta mangaren irudietan inspiratzen da, baita minimalismoaren pentsamenduaren berri-rakurketa ironikoan. Pieza hau Artelekun 2002ko ekainean aurkeztu zen Ion Munduate eta Blanca Calvo-k koordinatu zuten *Mugatxoan* programan.

YC Nola bildu zineten *SShot* (Jennifer Lacey, Nadia Lauro, Zeena Parkins eta Erin Cornellekin batera sinatu obran) proiektuaren inguruan?

JL Ohar guztiz simple bat bidali nion bakoitzari: "Pornografiako, bereziki *gay* pornografiako, eta mangetako gorputzaren espresioarekin zerikusia duen zerbait darabilt buruan, interesatzen zaizu?" Gorputz espresioa denaren eredu garbia da pornografia. Zeinu sistema bat. Alabaina, nik ez nuen kode bat birsortu behar izan nahi. Jariakinak adierazten dituen gorputz iragazkor baten ideia, pornografian dagoen ideia hori, bat zetorren fisikoki egiten ari nintzenarekin. Pornografiak nolabait metafo-raren bukaera azaltzen du. Guztiz laua da. Gorputz osatu gabeari egiten dio dei, dimentsio imajinariorik ez duenari. Arreta gay pornografian jartzea erabaki nuen, nire emakume-imaginariorik urrun dagoelako. Aspertua nintzen mintzatu nahi bai baina ezinean ari den gorputz batez, asmo opakoak dituen gorputz batez. Jada ez nion zentzurik ikusten dantza guztiz fisiko, gozatsu bati.

YC Zuek irudi hitza erabiltzen duzue *SShot*-i dagokionez. Zuentzat pieza hau irudi lana da beste ezer baino areago?

JL Agertokiko gure esperientziarekin loturiko lana da hau. Funtsean gure sentipenez arduratzen gara eta, aldi berean, lanaren aurkezpen ekonomian sartzen dugu kezka hori. Badakigu gauzkan ingurune batean gaudela, eta gero irudia dago hor. Nire lanaren muina sorturiko irudien eta hura sortzen ari den esperientziaren artean kokatzen da. Batzuetan, irudi horiek beste batzuei itsatsita doaz, irudia moldatzen duten irudiak dira; beste batzuetan, halako distantzia bat dago. Horrek dinamika bat sortzen du, giroak, zentzua. Irudiaren gaineko lana da, baina irudiaren zerbitzuan ez dagoena. Bilaketa fisikoa eskatzen du horrek. Pieza lantzeko prozesuan zehar, era ia-ia obsesiboan ikuskatu ditugu geure laneko bideoak, gure sentipenen eta irudiaren arteko harremanaren bila.

YC Honetaz gero, ez duzu uste zuen ikerketa Xavier Le Roy-k *Self Unfinished* bezalako pieza batean jokoan jartzen duenarekin gurutzatzen dela?

JL Pozten naiz Xavierrek proposatzen duen forma hori partekatzeaz, baina gorputzaren irudiarekin lotuago agertzen da bera. Nik, nahita, alor lausoagoan, desordenatuagoan egiten dut lan. Beti objektiboaren eta subjektiboaren artean nabil ni. Jarrera hori, niri doakidanez, egoki-agoa iruditzen zait.

YC Zuk testu bat idatzi zenuen *SShot*-i buruz, "Gertakari nagusirik eza" izenburukoa. Horretan, Robert Morris-en "Eskulturaren gaineko oharra" laneko pasarte batzuk eta eskalapien inguruko webgune fetitxista batetik datozen testu zatiak bildu dituzu...

JL Ez nuen nik bi kontu horiek elkarren alboan jartzeko asmoa, baina nire lanean, agian modu ezkutuan-edo, bada beti erotismozko hazitxo bat, edo sexualitatezkoa bederen. Oharkabekoa da hori, horrela ekiten ▶



nire lanean, agian modu ezkutuan-edo, bada beti erotismozko hazitxo bat, edo sexualitatezkoa bederen



» diot lanari nik. Lehen geruza gisa eman dut, zer eragiten zuen ikustearren. Aldi bertsean, Lucy Lippard-en testu bat aurkitu nuen, erotismo eta arte minimalistari buruzkoa, guztiz zuzena formaren sedukzioari dagokionez. Objektu erotiko batek bera ez den beste ezeri egin diezaioke erreferentziarik? Testu horrek *SShot* moldatzerakoan lagun izan ditudan galdekizunak piztu zituen. Robert Morris eta Michael Fried irakurtzen hasi nintzen. Diskurtso minimalistaren paradoxak seduzitu ninduen; izan ere, horrek, maila teorikoan, atxikitzen ahal zaion zentzuaz gabeturiko formaren autonomia aldeztzen baitzuen, eta idazkeran, objektua fetitxe bihurtu. Dogmen alderdi ahulek beti erakartzen naute, ez ahuleziak direlako, baizik eta irekiune bat, espazio bat sortzen dutelako. Ene ustetan, dantza puntu ahulak dituzten ideiak aztertze bide bat da.

YC Zuek mangak aipatzen dituzue erreferentzia gisa. Ongi ezagutzen dituzue Japoniako komiki horiek?

NL Gorputzaren eta jariakinen tratamendua berezi samarra izaten da mangetan. Komikietan, oro har, eta mangetan, bereziki, gustukoa dut ingurunea nola eszenaritzen duten ikustea. Inoiz ez dakizu segurtasunez xehetasunak, objektuak, arketipoaren edo

Lurzorua aldi berean kliniko eta erotikoa da.

subertsioaren mailakoak diren. Baina aukera egiten da. Erregistro desberdinetan jokatzen dute *SShot* piezaren ikus-ingurune osagaiak. Eta askotarikoa da haien irakurketa, kuxinak erosotasun osagaiak dira, baina lan horretan protesien, objektu fetitxeen funtzioa ere hartzen dute. Lurzorua aldi berean kliniko eta erotikoa da. Laua da, haren mugimendua ekintzen mugimenduari estu loturik dago. Xehetasunetara eramaten du arreta. Ikus-ingurune jakin bat izanik ere, gorputzen eszenaratze berritu bat onartzen du, irudi iheskorak onartzen dituelako. Esaterako, Jenniferrek zoru mugikor eta esnetsu honen balbula bat ahoz hartzen duenean, esperma geruza bilakatzen da, eta irudi hori berehala desagertzen da.

JL Irudi horiek baliagarriak dira, nik neure egiten ditut, baina ez gara horiek atxikitzen saiatzen. Gehiago interesatzen zaigu esperientziaren alorra. Ikuskizunaren eta dantzaren munduan bere tokia duen produkzio modu bat delakoan nago. Bada asaldatu egiten nauen kontu bat: esplikatzen ez den lan bat, lan ahula, gaizki asmatua, arrapaladan egindakoa delako ideia. Oharkabeko dimentsio bat proposatzen saiatzen naiz, irudi ez landuegiak, ezta ahulak ere barnean har ditzakeena. Dantzaren eta ikuskizun biziaren ahalmenetako bat da hori.

NL Irudi horien esperientzia performancearen esperientziatik hurbil dago. Ikuslearen begirada batetik bestera dabil, distantzia bat eratzen duten argazki moduko irudien eta, askoz lausoagoa den kontenplazio harremana ezartzen duen beste zerbaiten artean.

JL Pertzepzioaren mugimenduak bizitza arruntean baino askoz era zabalagoan errespetatu eta jokoan jarriko dituen espazio baten bila nabil ni.

YC Antza denez, *SShot* pornografiaren etiketaren azpian agertzea gogaikarri gertatzen zaizue.

NL Mediatizazio kontua da hori. Tresna bat izan da pornografia, ez da *SShoten* gai nagusia.

JL Pornografia *SShoten* gai nagusi egitea lana nola hautematen den modua mugatzea da. Beste hainbat erreferentziaren artean aipatzen dut pornografia, baina hori besterik ez dute hartu gogoan! Hori da testu bat idatzi izanaren arrazoietako bat, ikuspegia batetik bestera igarotzeko ahalmena ikuslearen esku uztearren, lana nola interpretatu behar den agintzen dion egitarau bat eman beharrean. Kontuz erabiltzeko erreferentzia bat dugu pornografia, dimentsio sozial eta politikoa handia baitu.

YC Argibideak eman ditzakezue horretaz?

JL Nik ez dut ikuspuntu feminista batetik ikusten pornografia. Horrek ez du esan nahi feminista ez naizenik. Eratzen nauenaren parte bat da feminismoa. Zenbait autorek, hala nola Luce Irigarayk edo Judith Butler-ek, baita Julia Kristevak ere, proposatzen dituzten pentsamoldeak nire lanaren euskarri dira, baina ez dut deus frogatu beharrik, ezta defendatu beharrik ere. Alor politikoa irudimenaren aukerez elikatzea interesgarriagoa iruditzen zait. Hori da *SShoten* bidez egiten saiatzen naizena; obra horretan gorputzari loturiko zentzu anbiguorik ezaren absentiak eta abiarazten dituzten irudi lausoek ebaki moduko bat irekitzen dute.

NL Zeure burua zurriz saiatzen bazara, hasiera-hasieratik gutxiengoaren alde jartzen ari zara.

JL Ez gara ahulak. Agertokian azaltzen naizenean, ez naiz ezinbestean emakume gisa azaltzen, izaki askoz konplexuago baten moduan baizik. ❧

Elkarrizketa hau frantsesez "ils s'exposent" izenburuarekin eta ingelesez "Bodies on Stage" izenburuarekin argitaratu zen *Art Press* aldizkariaren 270. alean (Paris, 2001eko uztaila-abuztua)

JENIFER LACEY koreografo eta dantzaria. Estatu Batuetan jaioa, gaur egun Parisen kokatua. NADIA LAURO artista bisuala eta eszenografoa. Gaur egun Parisen bizi da.

obra horretan gorputzari loturiko zentzu anbiguorik ezaren absentiak eta abiarazten dituzten irudi lausoek ebaki moduko bat irekitzen dute.